



BETERRIKO ALDIZKARIA



AIURRI

1996ko uztairen 24a. 41. zenbakia. Dohain banatzen da.



SANTIO ¹⁹⁹⁶ jaiak

BILLABONA

Ama Kandida etorbidea z/g.
 DENAK 115 - ANDOAIN
 ☎ 30 04 67



Kidegas, S.L.

GASA ETA BEROGINTZA



Santio jaiak 1996

Jai zoriontsuak
opa dizkizue



EUROPEAN SCHOOL
HIZKUNTZ AKADEMIA

- ✓ JATORRIZKO IRAKASLEGO TITULUDUNA
- ✓ INTERPRETARITZA ETA ITZULPEN ZERBITZUAK
- ✓ IKASTAROAK URTE OSOAN "STEP UP" PROGRAMA, ESKOLARAKO LAGUNTZA, ENPRESETARAKO IKASTARO BEREZIAK
- ✓ AZTERKETA OFIZIALETARAKO PRESTAKUNTZA
- ✓ CAMBRIDGE, ALLIANCE FRANÇAISE TITULUTARAKO AZTERKETAK
- ✓ TALDE MUGATUAK

INGELESA - FRANTSESA

Kale Berria, 10 Tel. - Fax. 69 39 76
BILLABONA

Santio jaiak ondo igaro itzazue

Antxin 1, BILLABONA

1. **AURKIBIDEA.**
AIURRITARRAK
Joseba Erkizia: "... eta gainera gaztea".
2. **GALDEZKA.**
Eta zuk, zer egingo duzu oporretan?
3. **ADUNA - LARRAUL.**
Herriko jaiak.
- 4-5-6. **ANDOAIN.**
Udal arautegiaren aldaketa.
Udaltzain plaza.
Sorabilla eta Etxeberrietako jaiak.
7. **ASTEASU**
Gaztetxoan auzolandegiak herrian.
- 8-9. **BILLABONA.**
Presoak Euskal Herriratzeko sinadura bilketa.
Oskarbi abesbatzaren entseu irekiak.
10. **ZIZURKIL.**
Jarraipen batzordeak ekitaldi ugari antolatu ditu.
11. **BASERRIA.**
Tolosaldeko Babarrun Elkartea.
- 12-13. **SANTIOAK 96.**
Santiotan pilota partiduak eta herritarrek dira jaietako protagonistak.
- 14-15. **ELKARRIZKETA.**
Ixiar Oreja andoaindarra.
- 16-17. **KIROLA.**
Ibai-amuarrainak arrantzan egiten.
18. **ERRETRATU ZAHARRA.**
19. **ZER BERRI? / LEHIAKETA.**
20. **AGENDA**

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31 **Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Antxiñe Mendizabal. **Maketatzailea:** Iñaki Garmendia. **Erredakzioa:** Antxiñe Mendizabal eta Ainhoa Oiarzabal **Argazkiak:** Manu Mujika, **Komikia:** Beñat Azurmendi. **Publizitate arduraduna:** Fernanda Irazu **Administratzaile-eragilea:** Xabier Irisarri. **Inprimategia:** Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati). **Filmaketa:** VideoCys, Donostia. **Lege-gordailua:** SS-202/94 ISSN: 11354-0614 **Tirada:** 3.500 ale.

OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



.... eta gainera gaztea.



JOSEBA ERKIZIA

Lehengo batean lankide bat eta biok beste batekin hizketan ari ginela (denok hogeita hamar-berrogei urte bitartekoak), halaxe esan zigun hark bere lankide bati buruz: "Gaztea da, baina oso langilea ona eta fina da".

"Gaztea da baina..." hori entzunda, nere lankideak ihardetsi zion gaztea izatea ez zela akatsa, bertutea baizik, ezer izatekotan. Eta arrazoi zuen.

Heldu-edadetu askok bizitzari buruz filosofatzen hasi eta topiko bera hamaika modutara hitzetik hortzera errepikatuko dituzte: "Izan ere gaurko gazteak... buru arinak, alperrak, gau-parrandazaleak, goiz-lotiak...baitira". Urte gogorretako burruka politikoan ibilitako askok ere badituzte hamaika kezku: "Gaur egun gazteak berekoiak, konformistak eta atzerakoiak dira, ez dute kontzientzia politikoa, ez dute iraultzarik nahi..."

Ikuspegi hori, ordea, historian zehar behin eta berriz errepikatzen ari den kurpilekoa da, eta belaunaldi orok bere frustrazio eta asmo zimelduen errua hurrengoari leporatu nahi izanaren ondorioa delakoan nago.

Gazteriarri buruz irudi eta iritzi topikoak egiteko dugun joerak ez du funts haundirik, gazteria berez oso anitza baita, gainerako adin multzoetako jendea bezain anitza, edo behar bada anitzago.

Agian beti buila gehiena egiten dutenak nabarmentzen direlako, agian beti albiste ezkorrek zabalku zaleak garelako, lausotu egin ohi zaizkigu egungo gazteek dituzten balore positiboak. Ez al daude, bada, gazteen artean gaur inoiz baino errotuago adiskidezaletasuna, solidaritatea, pakezaletasuna, naturarekiko atxikimendua, praktikotasuna, bizitza proiektu zehatzak izatea eta horrelako balore asko eta asko?

Historia haundiaren liburuetan ez dira maiz agertzen gazteak, baina historia haundia historia txiki askoren eraginez mugitzen bada, leku berezia aitortu behar genieke horretan ere gazteei.

Esate baterako, Espainiako Estatuaren azken urteotako historia politikoan izan den albiste haundi eta garrantzitsuenetako bat derrigorrezko soldaduska kenduko den iragarpena da. Erabaki hori gauzatzen denean bakarrik konturatuko gara nazionalismo espainiarrik atzerakoiak izan duen balore ideologiko sakratuenetako bat (armadaren garrantzia, "aberriaren" aldeko zerbitzua...) auzitan nola jartzen den.

Tamaina horretako urratsa gazteek, eta bereziki Euskal Herrikoek, egindako burrukari esker emango da; iragarri duten epean edo beste batean, baina eman egingo da. Eta ez PPko gobernuak gogokoa duelako -gogora gaitezen PSOEek berak ez duela urrats hori emateko ausardiarik izan. Gazte Sozialistek mila bider eskatu dioten arren- baizik eta gazteen tinkotasuna eredugarria izan delako, gazteek bakarrik izan dezaketenen konbentzimenduz eta inplikazioaz jokatu dutelako. Aspaldi honetan izan al da soldaduskarako intsumisioa baino mugimendu iraultzaileagorik?

Beraz, nahiago nuke ohituko bagina "gaztea da, baina oso langilea ona eta fina da" modukoak esan ordez honelakoak esaten: "oso langile ona eta fina da, **eta gainera gaztea**".



Aldizkari honek Eusko Intzularitza Kultur Departamentuaren laguntza jasotzen du.



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultur Departamentuaren laguntza jasotzen du.

ETA ZUK, ZER EGINGO DUZU OPORRETAN?

Derrigorrezko galdera da urte sasoi hone-tan, udako oporrak bertan ditugula. Langile gehienek hartzen dituzte oporrak abuztuan, ikasleak uztaileko jai hartuta daude, eta guztiok nahi izaten ditugu atsedeen egun batzuk herritik urrun ez bada ere, egunerokotasunetik urrunduta. Uztailean egural-


diak hondartzara joateko behintzat, ez du asko lagundu, mendi buelta batzuk egiteko berriz, ez du eguraldi txarra egin. Iragarpe-nek diote abuztuan oso eguraldi eguzkitsu-rik ez dugula izango. Hala ere, guztiak dauzkagu oporrak buruan. Eta zuk, zein asmo duzu hurrengo hilabeterako?



Jaione Okon, ikaslea. Andoain.

Hilabete oso eman dut oporre-tan. Egun hauetan lagunekin joa-ten naiz igerilekura, eta eskolako etxekolanak egiteko ere aprobe-txatzen dut. Abuztuan familiarekin

joango naiz oporretara. Tarragonara joango gara aurki, eta ondoren Errioxako herriska batera. Oso ongi igarotzen ari naiz oporretan.



Jose Antonio Azkue, langilea. Billabona.

Kanpora joateko asmoa dugu aurten, Galiziara. Hiru aste igaroko ditugu bertan, izan ere, iaz ez geni-tuen oporrak izan, eta aurten, gal-dutako opor egunak berreskuratu nahi ditugu.



Sergio García, ikaslea. Asteasu.

Aiako igerilekura eta hondar-tzara joaten naiz oporretan. Gauean berandu joaten naiz etxe-ra, eta goizean berriz, hamaikak aldera jaikitzen naiz. Abuztuan Caceresera joango naiz gurasoe-kin familia bisitatzera.



Emilia Nieto, langilea. Andoain.

Oraindik ez dakit zer egingo du-dan. Norabait joan nahiko nuke, itsasertze aldera. Orain arte gurasoe-kin joan izan naiz, beren herrira, baina aurten nire kasa ibili nahiko nuke. Beti leku berberera joateaz aspertuta nago.



Eneko Arizeta, ikaslea. Larraul.

Oporretan hondartzara, igerile-kura, eta antzeko lekuetara joaten naiz lagunekin. Normalean gaueko hamabiak aldera joaten gara etxe-ra, eguna Asteasun pasa ondoren.

Kanpora berriz, Oikinara joango naiz egun batzuk pa-satzera, lehenengusuen etxera.



Jennifer Luís, ikaslea. Zizurkil.

Zauzako kanpinera joango naiz oporretara gurasoekin. Hamabost egun igaroko ditugu bertan, eta Bi-llabonako jaiak hasi aurretik edota ondoren joango gara. Uztailean he-rrian egon naiz: egun batean hondartzara joan, bestean herrian gelditu...

JOSEBA
Haltzariak
Kaletxiki, 6 Fax - Telf. 59 07 61
ANDOAIN

KIROLETARAKO BEHAR DEN GUZTIA

**KIROLAK
EDURNE**

Kaletxiki, 6 - ☎ 59 19 58

ANDOAIN

AMAIA
GIRRE
ZPIAZU

**MEDIKUA
OSTEOPATA**

RPS: Nº 121/96

•LUNBALGIAK •ARTROSIAK
•GIHARRETAKO MINAK ETA ABAR...

KALE NAGUSIA, 7 - 1. ESK. ☎ 59 40 02
20140 ANDOAIN



ADUNAKO JAIAK

Egitaraua

ABUZTUAK 14

20.30: Txupinazoa.
Ondoren: Txistulari eta buruhandien kalejira.
 21.00: **Herri afaria** (aldez aurretik txartelak erosi).
 23.30: GOZATEGI taldea.

ABUZTUAK 15

(Ama Birjinaren eguna)

07.00: Herriko txistularien diana.
 11.00: Meza nagusia.
 12.00: **Axeri dantza**.
Ondoren: Herriko dantzarien emanaldia.
 18.30: Herri kirolak.
Ondoren: Alterofilia saioa.
 22.30: **Azkoiti eta Amezketa arteko pilota partidu**.
Ondoren: TRAKETS taldea.

ABUZTUAK 16

(Gazte eta umeen eguna)

06.30: Oilasko biltzaileen irteera.
 12.00: Herriko pilotarien arteko lehia.
 12.30: Lora sariketa. Lorontziak eguerdiko 12etatik 12.30etara ekarri behar dira plazara.
 13.00: **Oilasko joko**.
 14.30: Haurren bazkaria.
 17.30: **Ume jolasak**.
 21.00: Afaria oilasko jokoan irteerako.
 22.30: TXOMIN eta URBIL ARTOLAREN kantaldia.
Gauerdian: MALTZETA taldea.




ABUZTUAK 17

(Jubilatuaren eguna)

14.00: **Jubilatuaren bazkaria** Mañukorta eta Zeberio bertsolariekin.
 18.30: UDABERRI dantza taldearen saioa.
 22.30: **Bertsolari jaialdia:** Egaña, Peñagarikano, Estitxu Arozena eta Ion Iturriaga.
Ondoren: KRISTINA eta AMAIA trikitilariak.

ABUZTUAK 18

12.00: Sagardo dastaketa.
 14.00: **Txekor jatea**.
Ondoren: Toka joko.



LARRAUL

Esteban Donearen jaiak

ABUZTUAK 2

22.30: Bertsolariak: LIZASO, PEÑAGARIKANO, EUZKITZE, ITURRIAGA eta JON SARASUA.
Ondoren: JOKIN, AZKONABIETA eta beraien taldearen erromeria.

ABUZTUAK 3

(Esteban Donearen eguna)

11.00: Herri meza.
 12.00: Herriko zaharrentzat haiketakoia.
Ondoren: Haur jolasak eta trikitixa.
 21.00: **Herri afaria**.
Ondoren: EGAN BERRIA taldea.

ABUZTUAK 4


11.00: Herri meza.
 12.30: Pilota partiduak.
Ondoren: Herriko gazteen trikitixa saioa.
 17.00: **V.mus txapelketa**.
 22.30: TRABUKO taldea.

Ondoren Bartolome Donearen jaiak ospatuko dira, abuztuaren 24tik hasita

JOSE ANTONIO URBIETA GARRAIOAK

URTE OSOAN SU EGURRA

BELARRA ETA LASTOA BERE GARAIAIN



Lege Zaharren Eparantzza, 4 -2
 ASTEASU (Gipuzkoa)
 ☎ 69 26 76 - 69 30 92



UDAL ARAUTEGIAREN ALDAKETA

**PSE-EE, EAJ-PNV, EA eta PPK baiezkoa eman diote;
HB eta IU-EZk ezetza**

Arautegian onartu diren aldaketaren ondorioz, udal batzarrak hiru hilean behin, gutxienez, egingo dira, eta ordutegia, alkateak egoki iritzitakoa izango da. Bestalde, alkateak edo zinegotzi talde batek eskatuz gero, premiazko udal batzarrak egingo dira. Gainera, herritarrek gai zerrendan zehaztutako edozein gai buruz iritzia eman ahal izango dute; ez ordea, gai zerrendan zehaztuta ez badago. Hala nola galde-erreguetan, hitz egiteko aukera izango dute.

Bestalde, liskarra edo haserrea eragin dezakeen adierazpiderik ez da aretoan onartuko. Hala gertatuko balitz, alkateak halako egoera eragin duten herritarrek udal aretotik eskuetan jarri, eta auziperatzeko ahalmena izango luke.

Ezetza

HBk, IU-EB alderdiarekin batera, ezezko biribila eman zion aldaketa proposamenari. Alderdiaren ustez, arautegiaren aldaketa proposamena, Senideak elkartearen pankarta dela-eta, sortu zen, talde horren adierazpidea galerazi na-

Udal gobernuaren proposamenari jarraituz, Udalak bere arautegia aldatzea onartu du: aurrerantzean alkateak erabakiko du udal batzarren maiztasuna eta ordutegia. Gaia zerrenda, orain arte bezala, alderdien bozeramaile batzarren iritzia entzun ondoren erabakiko du alkateak, eta ez da udal aretoan nahasmena eta liskarra eragingo duen adierazpiderik onartuko.

hian: «Adierazpide guztiak dira onargarriak-cesan zuen Miren Begoña Mujikak-, pankarta barne. Senideak elkartearen pankarta. kritika politiko butsa zen. eta hala onartu beharra dago». Bestalde, udal batzarrak hiru hilean behin eginez, herritarren partehartzea oso murrizten dela uste du HBk, eta batzarrak, orain arte bezala, arratsaldeko zazpietan egin behar direla uste du, eta ez alkateak egoki irizitakoan. Oro har, onartutako aldaketek hiritarren partehartzea murrizten dutela uste dute.

Eloi Artolazabalek hitz egin zuen PSE-EEren izenean: «Udal batzarren hitzak izan behar du nagusi. Hiritarrek, gai-zerrendan zehaztutakoaren arabera, hitz egiteko

aukera dute. Eskubide bori ez bahlite, beste adierazpide bat onartu beharko genuke, baina hiritarrek hitz egin dezakete». Bestalde, Andoaingo Udaleko arautegia, beste herri batzuetakoarekin alderatuz, oso zabala eta berme handikoa dela adierazi zuen. Gainera, herritarrek parte har dezaten batzorde informatzaileak nahiz udal kontseiluak bezalako beste erakunde batzuk baidaudela azpimarratu zuen.

Hala ere, alderdi gehienek adierazi zuten, neurri batzuk ala beste hartu, gaur egun edozein batzarretan herritarren partehartzea oso txikia dela, eta aurrerantzean herritarra informatzeko eta partehartzea bideratzeko ahaleginak egingo dituztela.

APARKALEKUAK SALGAI

Nafarroa plazan, etxebizitzak eraikitzen ari diren 17. poligonoan hain justu, aparkalekuak salgai daude. Bertako bizilagun eta merkatariei lehen-tasuna emanez, lau hilabeteko epea dute erosketa egiteko. Epe hori igaro eta gero, edozein andoaindarrak izango du aukera.

Gehienez 296 aparkaleku egingo dira, 140 itxi eta 86 ireki. Itxiak hiru milioi balio dute, eta irekiek 1.850.000 pezeta. Interesatuak udal bulegoetan egin dezakete eskaria, edota Tyldo enpresak Nafarroa enparantzan edota Ama Kandida etorbidean duen bulegoetara jo dezakete, halaber telefono honetara deitu daiteke: 59 01 11.

Aparkalekuak Udalak eta aipaturiko enpresak duela gutxi izenpetutako hitzarmenaren ondorioa dira. Izenpetutakoari jarraituz, Tyldo enpresak Nafarroa enparantzan 50 milioi balio duten urbaniazazio lanak egingo ditu.



UDALTZAIN PLAZA

Intsumisoek ere aukera izango dute

Abuztuan zehar interesatuek Andoaingo Udalak iragarritako udaltzain plaza lortzeko izena eman ahal izango dute. Oinarrietan, besteak beste, honako baldintza hauek aipatzen dira: 18-30 urte izatea, B-2 gida karneta edukitzea, eta funtzio publikoetan ezgaitua ez egotea. Hala ere, oinarriek esaten dutenaren aurka, intsumisoek izena eman, frogetan parte hartu eta lanpostua eskuratzeko aukera izango dute, beti ere izendapena, legez kontrakoa izanik, errekurritaria delarik.


Herri Batasuna alderdiak adin mugak ekarriko duen partehartzaileen murrizketa kritikatu ondoren, intsumisoek ere parte hartzeko, oinarrietako puntu bat aldatzeko proposamena egin zuen. IU-EB eta EA bakarrik agertu ziren alde.

EAJ-PNV alderdiak ordea, beste zehaztapenik ere egin zuen: "Intsumisoen aurka kode penal berriaren arabera sententziarik ez da oraindik kaleratu, beraz, gure deialdian aurkeztuko diren intsumisoak aurreko kode penalaren arabera auziperatuta daudenak izango dira, eta horrek intsumisoei atea irekita uzten die. Oinarriak aldatuz gero, berehala errekurrituko lituzkete". Arrazoi hori dela eta esan zioten proposamenari ezezkoa, "oinarriak mantenduz intsumisoek aurkezteko aukera izango dutelakoan ematen diegu oinarri hauei baiezkhoa". Idazkariak hala ere, lanpostua intsumiso batek lortu eta Uda-

lak izendapena onartuz gero, errekurritaria izango dela zehaztu zuen. PSE-EE alderdiaren esanetan, soldadutzari buruzko norbere iritzia alde batera utzita, alderdiak ez du legearen aurka egiteko asmorik.

IU-EBren mozioa

Aipaturiko erabakiaren ondoren, IU-EBk mozioa aurkeztu zuen. Udalak deitutako edozein lanpostu edota plaza intsumisoen partehartzea bermatzeko proposamena egin zuen bertan, "izan ere Udalak onartuta dauka Udal antimilitarista dela dioen mozioa", esan zuen Nicolas Pérezek. EAJ-PNV, EA eta HBk eman zioten baiezkhoa mozioari, eta Udalak onartu egin zuen.



Udaltzain postu berria

UDALA «TREN TXIKIKO 31»REN ALDE

Plazaolako 31. lokomotora berreskuratzeko asmoz duela bi urte jaio zen «Tren Txiki 31» taldeak Udalaren laguntza jaso du onartutako mozio baten bitartez. Izan ere, taldeak, besteak beste, garai batean Gipuzkoa eta Nafarroan trenak zeharkatzen zituen herri guztietako udalei laguntza eskatzeko asmoa dauka, eta horretarako alde aurretik herriko Udalaren babesa edukitzea komenigarria iruditu zaio.

Taldearen nahia tren zaharren azken lokomotora berreskuratu eta Azpeitiko Tren Museora ekartzea da, baina aldi berean, gaur egun lokomotora dagoen Pongerradako Udalaren asmoekin kontrajarrita dagoela ematen du, izan ere, bertan ere lokomotora ikusgai jarri tren museo bat ireki nahi dute. Hala ere, taldeak baikor agertu dira, eta bi aldetako interesak uztartu eta bat etor daitezkeela uste dute.

Aurrerantzean herritarrak zuzpertzeko firma bilketa, erakusketak eta beste ekintza batzuk egiteko asmoa daukate.

KUBAREN AURKAKO BLOKEOA SALATU DUTE

Udalbatza osatzen duten alderdi guztiek, PP alderdiak izan ezik, Askapena erakundeak proposatutako mozioari baiezkhoa eman diote. Bertan EEBBk Kubaren aurka ezarritako ekonomia, merkatal eta finantza blokeoari amaiera emateko eskatzen da. Aipaturiko mozioa 1995. urtean Nazio Batuak laugarren urtez onartutako gaitzezpen ebazpenean oinarritzen da.

Era berean EEBBko lehendakari den Bill Clintonek iragarritako «Helm Burton Legearen» aurkako adierazpena onartu da mozio berean. Lege horren arabera bisatu estatubatuarrak kenduko zaizkie Kuban inbertsioak egiten dituzten enpresari eta beren familiei; Kubako iraultzak eragindako desjabetzapenengatik kalitetuta sentitzen diren EEBBko herritarrek demanda judizialak ezarri ahal izango dituzte; onartutako kalte ordainak Kubako nazioarteko erakundeetan dituen dirulaguntzen bitartez egingo lirarteke; eta zigor neurriak onartu dira Kubako zentral nuklearrean parte hartuko duten herrialde eta enpresen aurka.



ETXEBERRIETAKO JAIAK

UZTAILAK 26:

18.00: Txupinazoa.
Ondoren haur jolasak eta ginkana.
20.00: Poniak, eta txokolatada jarraian.
23.00: Dantzaldia Xirimiri taldearekin.

UZTAILAK 27:

11.00: Futbol partidua: Etxeberrieta eta Baleo Jan aurrez aurre.
17.00: Mus txapelketa Ikatza tabernan.
18.00: Zinta lasterketa.
19.00: Poniak eta sardina jana ondoren.
23.00: Dantzaldia Agirren taldearekin.

UZTAILAK 28:

09.30: Mendiko txirringa lasterketa.
11.00: Nesken futbol partidua: Andoain eta Lasarte aurrez aurre.
17.00: Tute txapelketa Alfaro erretegian, eta toka txapelketa leku berean.

18.00: Lasarteko Erketz dantza taldearen emanaldia.

20.00: Herri kirolak.

21.30: Alma Navarra taldearen emanaldia.

UZTAILAK 30:

18.00: Poniak.
19.00: Guñol antzerki taldearen emanaldia.
20.00: Patata tortila txapelketa.
23.00: Dantzaldia Hotza taldearekin.

UZTAILAK 31:

10.30: Kalejira.
11.00: Meza Gurutze Santu elizan Alberto Agirre abesbatzarekin.
12.00: Trial Sin.
14.00: Auzokoen bazkaria, jarraian aiton-amoneni omenaldia.
20.00: Poniak.
21.30: Dantzaldia Xirimiri taldearekin.

SORABILLAKO JAIAK

ABUZTUAK 30:

17.00: Jaien hasiera.
17.30: Haur jolasak.
23.00: Dantzaldia Gozategi taldearekin.

ABUZTUAK 31:

22.30: Bertso jaialdia: Joxe Lizaso, Agirre, Gorrotxategi eta Zeberio. Gai jartzailea: Aitor Mendiluze.
Ondoren Trakets taldearekin dantzaldia goizaldera arte.

IRAILAK 1:

17.00: Herri kirolak.
Ondoren Oinkari dantza taldearen saioa.
Jarraian Trakets taldearekin dantzaldia.

IRAILAK 7:

00.06: Baserrietara irteera.
13.00: Oilasko jokia.
15.00: Gazteen bazkaria.

IRAILAK 8:

11.00: Meza nagusia auzoko hildakoen alde.
Ondoren hamaiketakoa auzoko jubilatuentzat.



ALOTZ
IZOZKINAK

Kaleberria, 9 - ☎ 59 07 06
ANDOAIN

ASESORIA
GESTORIA
ASEGURUAK

ALDAMA - TAPIA

KALITATEA ETA SEGURTASUNA !!

Kaleberria 22
Telefonoa 59 44 76 - 30 01 67

20140 ANDOAIN

GAZTETXOEN AUZOLANDEGIAK HERRIAN

Zaingo Ordeka eta Otagain trikuharriak txukunduko dituzte

Gazte Kutxa Fundazioa eta Aranzadi zientzia elkartearen ekimenez sei auzolandegi antolatu dira Gipuzkoan uztail eta abuztuan zehar. Auzolandegi horietako bi Abeletxe aterpe-txean izango dira, eta beste lan batzuen artean, Asteasuko Zaingo Ordeka eta Otagain trikuharriak garbitu, txukundu eta seinalizatu dituzte bertan bildu diren gaztetxoek.

Guztira ehun eta berrogeita hamar gaztek hartuko dute parte auzolandegi horietan, 16-25 urte bitartekoak guztiak. Hamabost eguneko iraupena du auzolandegi bakoitzak, eta Abeletxen burutuko duten lehenengo auzolandegia hilaren 15ean hasi eta 28an amaituko da. Txanda horretan 16-17 urte bitarteko hogeita bost gazte ari dira lanean. Hurrengo txandak abuztuaren 5etik 18ra arte iraungo du, eta orduan 18-21 urte bitarteko gazteak etorriko dira.

Asteasuko herrian eta inguruko beste herrietan ari dira lanean gazteak, baina ez dira egun guztian lanean aritzen: goizean bost orduz aritzen dira lanean, eta arratsaldean berriz, gai horren inguruan hezitzeko ekintzak egiten dituzte. Goizean, beraz, trikuharriak garbitu eta txukuntzen dituzte, non dauden seinalizatu eta behin lan hori amaituta, trikuharri horiek babesteko eta zaintzeko azterketa zehatz bat egingo dute antolatzaileek. Asteaburuetan berriz, Gipuzkoako zenbait mendietara irteerak egiten dituzte.

Auzolandegi horien helburuak gazteen aisia era atseginean betetzea eta Gipuzkoako txoko ezberdinetako jendea elkar ezagutzea da. Era berean, Gipuzkoako ingurua eta historia ezagutarazi nahi dute antolatzaileek.



Sagain Zelaia: trikuharria eta urkia

Txukundu beharreko bi trikuharriak


Zaingo Ordeka trikuharria Ernio mendiaren megalitotegiaren barruan kokatzen da. Zaingo Bordak izeneko trikuharriak dauden tokitik ekialdera dago trikuharria, 150 metrotara, hain zuzen ere. Neolito-Brontze garaikoa da, eta J. San Martinek aurkitu zuen 1963an, baina aztertu eta industu gabe dago oraindik. Otagain trikuharria berriz, Otagain muinoaren gainean dago, Iturriotz baseritik 550 metrotara. Garai berekoa da trikuharri hori ere, eta urte berean aurkitu zuen J. San Martinek.



**ELEKTRATRESNAK
SUKALDERAKO HALTZARIAK**



Arteta kalea, 1 eta 3
☎ 59 12 26 - Faxe 30 03 45
ANDOAIN



*ogi berezi eta
artesauek
etxerainoko
zerbitzua*

OGI ZURI

OKINDEGIA, S.L.

OGI-GOXO



• TARTAK • IJITO BESOA • PASTELAK
• TEILAK-ZIGARRILOAK
• HOJALDREAK • MAGDALENAK

Kale Nagusia, 26 - Tel. 693294 - BILLABONA

KIROL JANTZIAK
Lirauna

Ama Kandida etorbidea, 6 Posta kutxatila 110 - ☎ 59 44 47

ANDOAIN

PRESOAK EUSKAL HERRIRATZEKO SINADURA BILKETA

Hilaren 26, 29 eta 30ean berriro jarriko dituzte sinadurak biltzeko mahaiak

Presoak Euskal Herriko garteletara ekartzeko eskatzeaz gain, Senideak elkarteak aurkeztu eta Udalak onartu zuen mozioaren puntuekin bat dator jarraipen batzordea: dagokioen presoen baldintzapeko askatasuna eskatzen du, besteak beste. Helburu horiek guztiak lortzeko ekimen batzuk jarriko dituzte martxoan batzordeko kideek, eta horietako batzuk jadanik hasi dira egiten. Ekimen horietako bat, gaiaren inguruan bailarako udalekin harremanak edukitzea izango da: era berean, batzordearen eskaerak nahiz helburuak herritarrei azalduko dizkiete, eta horren ondorioz, herritarren inplikazioa lortu nahi dute: azkenik, erakundeei ere zenbait eskaera egingo dizkiete. Batzordean pentsaera ezberdineko jendea biltzen da, erakunde edota elkarre ezberdineko ordezkariak guztiak, nahiz eta behin edo beste herritarrek parte hartu. Amabilia, Oinkari, Herriko Kontakatituluak, Aizkardi, Eliza, Apurka, Senideak, Amnistiaren Aldeko Batzordea, Zumbeltz, Armatroste, Jarrai, Suhari, EAJ-PNV, HB, EA eta Bidean erakunde nahiz elkarteek hartzen dute parte, eta erabaki guztiak kontsentsuz hartzen dira.

“Udalak ahal duen guztia egingo du dispertsioaren aurka”

Bailarako beste zenbait herritan bezala, Udal jarraipen batzordea eratu da herrian duela hilabete batzuetako udal batzar baten ostean. Batzorde horren helburua euskal presoak Euskal Herriko garteletara ekartzea da, eta horretarako, legea lehenbailehen ezartzea eskatzen dute. Hamazazpi elkarrek hartzen dute parte batzordean, eta orain esku artean duten ekimena herritarren sinadurak biltzea da.



Udal zinegotziak aritu dira firmak biltzen

Jarraipen batzordekoen esanetan, Udalak dispertsioaren aurka ahal duen guztia egingo du, eta beraz, batzordeak hainbat ekintza egingo ditu aurrerantzean. Ekintza horietako bat, hilaren hasieran ekin zioten sinadura bilketa da, eta jaietan ere zenbait mahai jarriko dituzte sinadura gehiago biltzeko asmoz. Mahai horietan batzordean parte hartzen duten elkarte

eta erakundeetako ordezkariak izango dira sinadurak jasotzen. Bien bitartean, jaietako egitarauarekin batera herriko presoen argazkiak eta helbideak banatu zaizkie herritarrei, sinatzeko gonbidapena luzatzearekin batera. Oraindik erabakitzeke daukate sinadura horiekin zer egin, baina bailarako gainontzeko udal jarraipen batzordekin berehala biltzeko asmoa dute.



ZUBi
AUTO ESKOLA
Ernio bidea, 2 - ☎ 69 06 93 - ZIZURKIL

SANHATSA
BELARDENDA ETA DIETETIKA ZENTRUA
KONSULTA NATURISTA
Kale Nagusia, 28 - ☎ 69 40 63 - BILLABONA

OSKARBI ABESBATZAREN ENTSEIU IREKIAK


XXXIII. txistu kontzertua prestatzen aritu dira

Aurtengo jaietarako txistu kontzertuaren kantak abesteko apirilean hasi ziren ensaiaitzen Oskarbi abesbatzako kideak eta zenbait herritar. Berrogei lagun bildu dira astean bi aldiz hilabete horietan guztietan zehar. Bederatzi kanta abestuko dituzte kontzertuan, eta aurten Behar-Zana elkarteari eskainitako kanta bat abestuko dute elkarteak bete dituen berrogeita hamar urteak ospatzeko. Kontzertua ostegun gaueko hamar t'erdietan izango da.

"Euskal Herriko kultura galtzen ari gara"

Iparagirreraren esanetan, jende asko ez da abestera animatzen, "eguingo haurrek ez dakite abesten", gaineratu digu. Bere ustez, gure kulturari eusteko ezinbestekoa da abestea, eta gainera, abesteak gozamina sortzen duela adierazi digu: "Abestean norberak egiten du musika, norberak jartzen dio abestiari doinua eta erritmoa". Beraz, abestea eta musika egitea atsegin baduzu, Oskarbi abesbatzako ateak zabalik dituzu. Datorren udazkenetik aurrera hasiko dira entseiu herriak Kultur Etxean.

Joselu Iturzaeta txistu irakaslea zenaren omenez txistu kontzertu ikusgarria antolatzen dute Santio jailetan, eta bertan, Oskarbi abesbatzak, Euskal Herriko txistulari elkarteak, Metal bostekoak, Oinkari dantza taldeak, Tolosako dultzaineroak eta Behar-Zana elkarte-ko danborradak hartzen dute parte. Hori prestatzeko entseiu bereziak egiten dituzte Oskarbi abesbatzako kideek, abesbatzako lagunez gain abesteko zaletasuna duten herritarrek ere parte hartzen dutelarik. Oskarbi abesbatzako Juan Mari Iparragirre zuzendariaren esanetan, urtero jende berdintsuak hartzen du parte, "Parte hartzen duten herritarrak aurretik kantari ibilitakoak dira, eta beraz, abesteko oinarri ona daukate", azaldu digu zuzendariak, herritar gehienak edadetuak direla azaldu ondoren.




Jaietarako prestatzen

HIRUGARREN ADINEKOENTZAT LIBURUTEGIA

**Astelehenetan eta asteazkenetan
11.00-12.30 parkeko eskoletan**

Irakurtzeko zaletasuna duten hirugarren adineko billabonarrek beren zaletasunaz gozatzeko aukera berri bat izango dute aurrerantzean. Izan ere, Sarea Berri elkartearen ekimenez, astean bi egunetan egunkariak irakurtzeko, aldizkariak ikuskatzeko, edota iritziak elkar trukatzeko parkeko eskoletako gela bat liburutegi bihurtu dute. Astelehenetan eta asteazkenetan irekiko dute aipaturiko liburutegia, goizeko hamaiketatik eguerdiko hamabi t'erdietara. Irakurtzeaz gain, kafea hartzeko aukera ere izango dute bertaratzen direnek.



Uztaileko hilabetean zehar zenbait ekintza antolatu ditu Udaleko jarraipen batzordeak "Euskal presoak Euskal Herrira legearen aplikazioa berehala" lelopean. Ekintza guztiak batzordean parte hartzen duten taldeek antolatu dituzte, talde bakoitzak egiten duen lanaren inguruko ekintzak egin dituztelarik. Era berean sinadura bilketari ekin diote, eta gutxi barru kamisetak aterako dituzte.

JARRAIPEN BATZORDEAK EKITALDI UGARI ANTOLATU DITU

Herritarren sinadurak biltzen ari dira

"Presoen giza eskubideak" izenburuaz bataiatu zuten Kultur Etxean egin zuten mahaingurua, eta bertan Pako Etxebeste Elizako-ordezkariak, Fermín Barceló Ararteko kideak, Ramon Gaztelumendi Senideak elkarteko partaideak eta Xabier Erro Salaketako ordezkariak hitz egin zuten. Pare bat orduko mahaingurua izan zen, eta hizlari guztiek presoan bizi baldintza kaskarrak salatu zituzten, eta gizarteak hori konpontzeko lan egin behar duela ere aipatu zuten. Eztabaida mamitsua eta partehartze handikoa izan zen antolatzaileen esanetan.

Horrezaz gain, pilota partiduak, koadrilen arteko futbito txapelketak, dantza saioak, herri afaria, sardina zein sagardo dastaketa eta pultsularien saioa antolatu zituzten Zizurkil goian nahiz beheran.

ZIZURKIL GOIKO JAIAK

Egitaraua

ABUZTUAK 14

Arratsaldean: Suziriak.
19.00: Aintzinako III. korrika.
20.30: Herri Afaria zentroan.
00.00: TRAKETS taldea.

ABUZTUAK 15

(Amabirjina eguna:)

11.00: Meza nagusia.
Ondoren: XVIII. pultsulari jaialdia.
18.00: Herri kirolak herritarren artean.
Ondoren: Zaharren eta gazteen arteko IV. futbol partidua.
22.00: Bertsolariak: Egaña, Mendiluze, Irazu, Lizaso, J. Agirre eta Jon Sarasua.
Ondoren: LAIOTZ taldea.

ABUZTUAK 16

12.00: Iparraldekoen herri kirolak.
Ondoren: Marmita txapelketa.
14.00: Jubilatuen bazkaria Iriarte etxean.
18.00: Billabona eta Zizurkilgo pilotarien arteko Txapelketa.
Ondoren: Barrikotea.
23.00: MAIXA eta IXIAR laukotea.
*TAPIA soinu-jotzailea eta Jose Lizaso eta Txomin Garmendiaren saioak izango dira egunean zehar.

ABUZTUAK 17

16.00: VII. mus txapelketa Iriarten. PRESO eta ERREFUXIATUEN GAUA
23.00: URRATS taldea.
UME FESTA
12.00: Buru Handiak.
12.30: Kross herrikoia.
Ondoren: Trikitixa.
14.00: Umeen bazkaria.
Ondoren: Jokoak eta marrazki erakusketa.
17.00: Titiriteroak.
*Egunean zehar gaztelu puzgarriak izango dira.

ABUZTUAK 18

12.30: BUKALAI taldearen dantza-emanaldia.
17.00: V. auto krossa.
Ondoren: Toka saioa.
23.30: AKELARRE taldea.
6.00: Txokolatada.

ABUZTUAK 19

6.30: Oilasko biltzeari ekingo zaio.
13.30: Oilasko jokoak.





TOLOSALDEKO BABARRUN ELKARTEA

Euskal Herrian ezezik, babarruna kanpora ere zabaltzeko asmoa dute

Uda ez da babarrunak jateko garairik aproposena izaten, hala ere, gaur egun, garai batean ez bezala, babarruna, eta Tolosaldeko babarruna bereziki, jaki preziatua bihurtu da, eta inguru hauetara etortzen diren udatiar askok gusto handiz jaten ditu, uda izan arren. Hori dela eta, Amasako Urrizti baserrira jo dugu Maria Luisa Iguaranekin, Tolosaldeko Babarrun Elkarteari buruz hitz egiteko.



Udazkenerako izango dira ale berriak

Orain dela hiru urte sortu zen elkarteak. Garai hartan Euskal Herrian kanpoko babarrun asko saltzen zen. Txilekoa edota Errioxakoa adibidez, Tolosaldeko babarrunaren ospe onaz aprobetxatuz eta nolabaiteko iruzurra eginez. Arrazoi horregatik sortu zen hain zuzen ere, elkarteak bertako babarruna babesteko. Horretarako bertako babarruna besteetatik bereiztu eta identifikatu egin zuten, eta gaur egun zakutxo berezietan saltzen da zenbait dendak, jatetxe edota baserritan. Elkarteak ekoizle bakoitzari dauzkan sailen araberrako zakuak baino ez dizkio ematen, horregatik beste era bateko babarruna sartuko duen beldurrik ez dago. Elkartearen ahaleginak oso emaitza onak izan ditu orain arte: *“Garai batean -esan digu Maria Luisak- babarrun kiloak 400 pezetatik saltzeru behartuta geunden, gaur egun, berriz, prezioari eustea lortu dugu, eta 800-1.000 pezetatik saltzen dugu kiloak”.*

“Bartzelona eta Madril aldera saltzen hasi gara”

Oraindik ere baserritar askok babarruna euren kasa saltzen dute: iazko kanpainan 15.000 kilo babarrun

bildu zen, eta 3.000 kilo besterik ez ziren elkartearen bidez saldu. Hala ere, aurrerantzean elkarteak berak lan handiagoa egin eta merkatu berriak jorratuz, salmentak bertatik bideratu nahiko lituzke: *“Edadeko baserritar askok gogoko izaten dute azokara joatea, baina gazteok ez ditugu lan horiek borren gustura egiten, eta nik uste dut elkartearen bidez bideratuko ditugula aurrerantzean salmenta gebienak”.*

Lokala eta tresneria

Gaur egun baserritar bakoitzak babarruna biltzen du, berak aletzen du, bereiztu, zakutxoetan sartu, eta eskuz josten du zakutxoak. Hala ere, aurrerantzean lokalen bat lortu nahiko lukete bazkide guztientzat, eta lana errazteko, baita aletzeko makina bat erosi ere. Aurrerago zakutxoak josteko makinaren bat ere eskuratu ahal izango dutela pentsatzen du Maria Luisak.

Oraindik ere Tolosaldeko babarrunen artean ezberdintasunak aurki daitezke ekoizle batetik bestera, baina arlo horretan ere, aldaketak egin nahi dituzte: *“Gaur egun gebientsuenok bazi ezberdinak erabiltzen ditugu -azaldu digu Maria Luisak-, baina burrengo kanpainarako guztira bi edo hiru bazi mota bakarrik eduki nahi ditugu, guztiak bateratzeko”.*

Tolosaldeko Babarrun Elkarteak Tolosaldeko edozein baserritarari irekita dago. Gaur egun berrogeita hamar bazkide inguru biltzen dira elkarteak.

SANTIOTAN PILOTA PARTIDUAK ETA HERRITARRAK DIRA JAIETAKO PROTAGONISTAK

Anartz Iturbe: "Santio jaiak geroz eta hobeak dira"

Arratsaldeko zazpietan emango zaie hasiera aurtengo Santio jaiari. Gaur hasi eta datorren asteazkenara arte ekitaldi eta parranda ugari ikusi eta egiteko aukera paregabea dugu Billabonan. Jun Da Bertan koadrilak botako du jaiari hasiera emateko txupinazoa, eta bertako kide den Anartz Iturberekin bildu gara jaietaz hitz egiteko asmoarekin. Txiste-kontalari eta antzezle paregabea dugu Anartz, eta jaietan ezezik telebistan ere, Txiskola saioan hain zuzen, trebetasun horiek ongi asko erakutsi ditu. Egitaraua azaldu, zenbait aholku eman, eta bide batez, bertara joateko gonbitea luzatu digu Anartzek.



Anartz Iturbe

Aiurri: Aurten Jun Da Bertan koadrilakoek botako duzue txupinazoa. Zein ekitaldi gehiagotan hartzen duzue parte herriko koadrilek?

Anartz Iturbe: Hogeita hamar koadrila inguru gara, nabiz eta horietatik gutxiak hartzen duten parte ekintza guztietan. Orokorrean, festetako ekintza askotako partaide izaten gara: koadrilen egiteko ekintzetan, urteroko konpartsa herrikoian, futbol eta pentlathon txapelketetan.... Beste ekintza askotan ere, pilota partiduetan adibidez, herritar askok hartzen dugu parte.

Ai.: Zeintzuk dira jaietako egunik hoberenak?

A.I.: Koadrilentzako uztailaren 30a da egunik hobereena. Koadrilen bazkaria egiten dugu Etxe Ondoko zelaian, eta bostebun lagundik gora biltzen gara. Gauean gainera, rock kontzertua dago. Uztailaren 26an berriz, artzain eta inudeen konpartsa emanaldia izango da, eta bertan herriko jende askok egiten du dantza. Uztailaren 25ean egingo du-

ten txistu kontzertua ere oso ikusgarria izango da. Aurten berriz, gauko eguna apartekoa izango da, gure koadrilarantzat behinik behin. Izan ere, guk bota behar dugu txupinazoa, eta gauean mozorrotu eta parodia bat egingo dugu. Oso parodia ona prestatu digu gauerako.

Ai.: Izango da jai hauetan gustoko ez duzun zerbait...

A.I.: Egunero dago pilota partiduren bat, eta nabiz eta pilota atsegin duenak ongi pasa, partidu gehiegi antolatzen direla iruditzen zait. Gazte taldeok pilotak herri honetan duen bultzada edukitzea nahiko genuke. Oso garrantzitsua da pilota Billabonarentzat, baina askotan, gehiegizkoa da.

Ai.: Gazte jendearentzako jai onak al dira Billabonakoak?

A.I.: Bai, oso onak gainera. Gauean beti dago musika plazan, eta gainera, txosnak, tabernak, eta ekintza asko izaten dira. Aipatu behar da ordea, bi giro ezberdin izaten direla jaietan be-

rrian: bata plaza ingurukoa, eta bestea berriz, Txermin auzoko tabernetakoa. Nik nahiago dut plaza inguruko giroa, herrikoia eta jai girokoa da. Bestalde, egunean zehar ere gauza asko ikusi eta egiten ditugu: pilota partidua, dantza saioak eta abar. Gainera, edadetuei nabiz haurrei ez zaizkie falta euren gustuko ekintzak.

"Jaietan bi giro oso ezberdin izaten dira"

Ai.: Zazpi egunetako jaiak ez al dira luzeegiak?

A.I.: Ez, oso ondo aprobetxatzen ditugu egun guztiak. Nekatuz gero etxera lehenago erretiratu eta kitto; gorputzak iraun bitartean ordea, aurrera. Bestalde, kanpoko jendea geroz eta gehiago etortzen da Billabonako jaietara; behin etorri gustatu eta hurrengo urtean itzuli egiten dira. Izan ere, Santio jaiak geroz eta hobeak dira.

EGITARAUA

Zazpi egunetako jaiak dira Billabonakoak, egun bakoitza bere gauarekin, noski. Beraz, ezinezkoa egin zaigu egun horietan guztietan zehar izango diren ekintza guztiak hemen azaltzea. Ondorioz, jaietako ekintza eta egun esanguratsuenak adieraziko ditugu jarraian:

UZTAILAK 24, ASTEAZKENA:

- 16.00: PIRATAK haur jaialdia.
19.00: Txupinazoa.
22.30: Danborrada.
00.00: Mozorroen gaua. Koadrilen parodiak.

UZTAILAK 25, OSTEguna:

- 09.30: Ume eta helduentzako kross herrikoa.
13.00: PASAIAKO musika bandaren kontzertua eta ondoren Udaltzaren bisita Santiago Egoitzara.
19.00: Soka dantza.
22.30: XXXIII. txistu kontzertua.

UZTAILAK 26, OSTIRALA:

- 11.00: Errebote partiduak.
11.00: Konpartsa herrikoiairen irteera INCANSABLES txarangarekin.
18.00: Konpartsa herrikoiairen emanaldia plazan.

UZTAILAK 27, LARUNBATA:

- 11.00: Billabonako Errebote txapelketaren finala.
17.00: Futbol txapelketaren finalak.
20.30: Txekor jana herrikoa.
22.00: Bertsolariak: AMURIZA, SARASUA, EGUZKITZE eta PEÑAGARIKANO.
05.00: Txokolatada.

UZTAILAK 28, IGANDEA:

- 08.00: Sokamuturra.
11.00: Eskuzko pilota partiduak.
11.00: Eskulangintza azoka.
18.00: Dantzari txikien emanaldia.
22.30: Paraguaiko ÑE'E baletaren emanaldia.
00.00: MAIXA eta IXIAR.

UZTAILAK 29, ASTELEHENA:


- 12.00: Jubilatuen meza.
14.00: Jubilatuen bazkaria.
17.00: Pentlathon txapelketako finalak.

UZTAILAK 30, ASTEARTEA:

- 14.30: Koadrilen arteko bazkaria.
18.00: Joko-Garbi pilota partiduak IPARRALDEKO taldeen aurka.
22.30: DR. DESEO eta ANESTESIA taldeen kontzertua.

UZTAILAK 31, ASTEAZKENA:

- 11.00: HASPARREN-BILLABONA Errebote partidua.
18.00: Billabona eta Amasako taldeen arteko herri kirolak.
11.59: Erroskilaren ehorzketa.



ONDARRETA
TABERNA

Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Pintxoak

Arkume eta txerrikume erreak enkarguz

Ondarreta 9, behea ☎ 59 36 27 ANDOAIN



Txuri Beltz
Taberna

Kaleberria, 9 ANDOAIN TELF. 59 35 49

AURRERA
TABERNA

Girorik ederrena gazteriarentzat!!
ZIZURKIL

VAC VAC **HOL - ATZ** 

VACOL - WITRATAMENDUA EGURRARENTZAT

VOTIOL ETA ALTZARIEN TRATAMENDUA

PITZADURA, PIPI eta HEZETASUNAREN
AURKAKO TRATAMENDU FIDAGARRIA

Elbarena, z/g.
☎ 69 30 63 - 69 07 34
ADUNA

Andoain

IXIAR OREJA

"Maixa eta Ixiar" laukoteko panderojole andoaindarra

"Maixa eta Ixiar" da beren izen artistikoa, hasiera batean Andoaingo Ixiar Orejak eta Altzoko Marixa Lizarribarrek bakarrik osatzen zutelako bikotea. Gaur egun izen berbera erabiltzen jarraitzen dute, baina Garbiñe Sagastibeltza, baxuarekin, eta Marie Helene, bateriarekin, bildu zirenetik, laukotea osatzen dute. "Uhinez ubin" izeneko beren bigarren diska plazaratu dute orain dela gutxi, eta uda garai honetan erromerietan daude betebetean herri bate-tik bestera. Andoaingo Ixiar Orejarekin izan gara laukoteaz eta beren lanaz hitz egiteko.



Aiurri: Lehen bikote, orain laukote; kontaiguzu zuen historia.

Ixiar Oreja: 1988an osatu genuen Maixa Lizarribar eta biok bikotea. Trikitixa txapelketa nagusira iritsitako lehenengo emakumeak izan ginen. Jendeari gaitza berezia iruditu zitzaion, eta handik aurrera lana sortzen hasi zitzaigun. 1992an grabatu genuen lehenengo diska Iker eta Larraitzekin. Handik pixka batera Garbiñe Sagastibeltza bildu zitzaigun baxuarekin, eta gaur egun laukotea osat-

zen dugu bateria eta perkutsioa jotzen duen Marie Helenerekin. Hala ere "Maixa eta Ixiar" izen artistikoa erabiltzen jarraitzen dugu.

Ai: "Uhinez ubin", zuen bigarren diska, duela gutxi plazaratu duzue. Nolako diska da?

I.O.: Hamalau kanta bildu ditugu, dantzarako guztiak. Hala ere, denetik aurki daiteke bertan: fandango berriko bat, Argentinako abesti baten bertsioa, eta bereziki egindako beste dozena bat kanta. Trikiti piezak dira guztiak, baina oso erritmo ezberdinak dituzte.

"Bigarren diskan, beharbada, beste zerbait aurkitzea espero zuten batzuek"

Ai: Lehenengo diskarekin ezberdintasun handia dauka?

I.O.: Bai, batetik, lehen ez genuen talde izaera, doinuak bereiztuta grabatzen genituen, eta azkenerraino ez genuen emaitza nolakoa izango zen jakin. Bestalde, oso egoera animiko ezberdinean geunden oraingo honetan: nabikoa ipurterre, nolabaiteko egonezin batekin, eta diskan ere hori nabaritzen dela uste dut. Gure jarraitzaile askok, beharbada, ez zuten horrelakorik espero, baina gu oso gustura gaude.

Ai: Bigarren diska grabatuta, nabiko egoera onean zaude-tela esan daiteke.

I.O.: Bai, orain arte zortea izan dugu, eta bigarren diska ere Elkar argitaletxeak proposatuta egin dugu. Gaur egun kontuan hartu behar da, argitaletxeek ez dutela apostu handirik egiten, eta diskak, baldin eta gero saltzen badira, grabatzen dituztela. Eta horretarako plaza asko egin behar dira, lehen prozesua alderantzizkoa zen: lehen diska egin eta ondoren plazak egiten basten ziren.

Ai: Finalera iritsitako lehenengo emakumeak izan zeratela esan didazu. Horrek izan al du zuen arrakastan zerikusirik?

I.O.: Ezetz esan nabiko nuke, baina ez da horrela, jendeak neskak izanda berezitat jo gintuen hasieratik, gure ahotsak batez ere, eta horrek gure alde egin du.

"Neskak izatea nolabaiteko bultzada eman zigun hasieran"



Arg: Xouse Simal

Ai: Erromeriazaleak zarete, ezta?

I.O.: Bai, orain dela biru urte inguru erromeriak loretan zeuden, gaur egun pixka bat jaitsi dira. Talde asko gara, eta ez dago nabikoa lan guztiontzat. Guk diskari esker, nabikoa ongi moldatzen gara.

Ai: Trikitiaz gain, beste musikatresna batzuk ere erabiltzen dituzue?

I.O.: Bai, baina gure oinarriak trikitixa izaten jarraitzen du. Hala ere, trikiti doinuak mugatuak dira, eta horregatik gauza berriak sartu ditugu; ez guk bakarrik: gaur egun, euskal musikariek asko erabiltzen dute trikitixa, eta trikitilariak beste doinu batzuk nabastuz oso doinu bereziak egiten ari dira. Hori trikitiarentzat ona da, zabaltzeaz gain, estilo ezberdinak sortzen dituelako. Orain dela oso gutxi arte trikitixa baserri giroarekin bakarrik identifikatzen zen, eta ona da kutsu hori kentzea.

Ai: Uda osoan izango dituzue erromeriak.

I.O.: Bai, irailaren amaiera arte, bai behintzat. Euskal Herri osoan zehar ibiliko gara. Hasieran gogor samarra gertatzen da, baina behin martxa bartu eta gero gustura ibiltzen gara. Hala ere, zaindu behar izaten da, eta askotan parrandarako gogoia izaten dugu, horrenbes-

te jai ikusita.

“Hiriren bat aukeratzekotan, Gasteiz”

Ai: Zein duzue plazarik gogokoena?

I.O.: Hiriren bat aukeratzekotan, Gasteiz aukeratuko nuke.

Ai: Zaila al da jendeari dantzaz eginaraztea?

I.O.: Normalean ordu Erdiko saioak egiten ditugu, baina tartean biru ordukoak ere egiten ditugu, eta eutsi egin behar zaio giroa mantentzeko. Dena den, herri batetik bestera alde handia dago.

Ai: Noiz hasi zinen panderoa jotzen?

I.O.: Abizpak hamabiru urte zituela trikitixa jotzen zuten, eta nik orduan pianoa jotzen nuen. Abizpa panderoa jotzen ikasteko eta ikasteko hasi zitzaidan esaten. Ikasi

nuten, eta txapelketetan parte hartzen hasi ginen 1987. urte inguruan. Garai hartan trikitilari gazte asko hasi ziren sortzen eta batez ere txapelketetan aurkezten. Moda antzeko bat izan zen. Batzuek aurrera egin dute, eta beste batzuk bi-dean geratu dira.

Ai: Zer iritzi duzu txapelketen buruz?

I.O.: Ni guztiz aurkakoa naiz. Trikiti txapelketetan epaimabaia- ren gustuen arabera neurtzen dira trikitilariak. Egia da txapelketek, gure kasuan bezala, aurrera egiten laguntzen dutela, baina nik ez ditut gogoko. Trikitilariak bultzatzeko argitaletxez gain, komunikabideek, irratiek adibidez, lan gehiago egin zezaketela iruditzen zait.

Ai: Aparejadore ikasketak egiten ari zara. Hala ere, trikitixa jotzen jarraitzeko asmoa al duzu?

I.O.: Ez dut nire bizitza musikaririk gabe imajinatzen. Aparejadore lana lan teknikoa da, baina musikaren bitartez sormena lantzen da, eta barne egoera eta sentimenduak adieraz daitezke. Orain arte zorte ona izan dugu, gainera, eta aurrerantzean ere gustoko gauzak egiten jarraitu nahiko genuke.

Ai: Orduan izango da birugarrenen diskaren bat?

I.O.: Izango da, baina ez dakit noiz, eta ez dakit nolakoa izango den. ■

ARANBURU
 agentzia
 Asegururik - Abolituraritzen
PROFESIONALAK GARA
 Kaleberria, 26 behea
 ☎ 59 08 14
ANDOAIN
 winterthur

Zabala
 Ordukari Bitxitegia

RACER **LOTUS**
TISSOT **SEIKO**

Kale Nagusia, 14 - ☎ 59 37 45 - ANDOAIN
 Gudari enparantza, 5 - ☎ 33 23 41 - HERNANI

BILLABONA

IBAI-AMUARRAINAK ARRANTZAN EGITEN

Bukatzeaz dago arrantza sasoia

Dabid Barandiaran billabonarra Tolosaldeko Arrantzale eta Ehiztari Elkarteko kidea da, eta arrantzale trebatua, gainera. Garai batean ehiza zuen gogoko, baina gaur egun Leitzaran aldera joan eta naturan arrantza egiten arratsaldeak igarotzea da bere zaletasunik handienetakoa. Arrantzalea da aspalditik, eta arauzalea halaber; ehizan nahiz arrantzan beti aldarrikatu du iharduera mugatua eta arautua.

Martxoan hasi ohi da ibai-amuarrain garaia, eta uda inguru honetan amaitzeaz dago dagoeneko. Gaur egun, arauak diotenaren arabera, gure ibai eta erreketan asteartetan arrantzan egitea debekatuta dago, hala nola 20 zentimetro baino gutxiago neurtzen duten arrainak hartzea. Gainera, arrantzaleak eguneko zazpi arrain baino ezin ditu hartu. Bestalde, Leitzarangoa bezalako eremu habestuetan 21 zentimetro baino amuarrain txikiagoak hartuz gero, atzera uretara itzuli behar dira.

Amu gisa, zizareak erabiltzen ziren garaian, uretara itzultzen ziren arrainek hiltzeko arriskua izaten zuten, normalean eztarrian kateatzen baitzitzairen amua, eta tira egitean hil egiten ziren. Gaur egun, gutxi dira zizareak erabiltzen dituzten arrantzaleak; gehienek amu artifizialak erabiltzen dituzte. Era askotako amu artifizialak daude, baina «euli» deiturikoa da, ziur aski, eza-gunena eta erabiliena. Oilarraren lepoko luma jakin batzuk erabiliz egiten dira «euliak» deituriko amuak, eta euli antza dutelako, edota arrainei horixe iruditzen zaie-lako bederen, ematen zaie izen hori. Gaur egun arrantzaleen artean «euliak» egiteko egundoko zaletasuna dago, arrantza egitea bezain gogoko izan ohi dute amuak egitea. Bestalde, David Barandiaranek kontatu digunez, garai batean mojek egiten zituzten «euli» amuak izan ohi ziren arrantzaleen artean estimaziorik handiena izan ohi zutenak.

«Amuarrainak hartzeko ez dago Leitzaran bezalakorik»



David Barandiaran billabonatarra

«Amuarrainak hartzeko -dio billabonarrak- Leitzaran bezalakorik ez dago». Halaber, Lizartza inguruko Araxes eta Asteasu inguruak bisitatu ohi ditu Davidek. Era berean, bere ilusiorik handiena urtean behin Aragoako Pirinio mendietara arrantzan egitea izan ohi da. «Inguru hauetan gaur egun baserrietako bon-dakinak direla eta, arazo handiak dauzkagu -dio David Barandiaranek-, lehen zikindu ohi zituzen urak garbitu egiten zituzen, gaur egun baserrietarak na-bikoa zabartuta dabiltza». Nonbait, baserrietako simaur biltegietatik gai toxikoak iragazi eta urak kutsatu egiten dira.

Kutsadura eta gaitzak

Bestalde, Leitzarango uretan ere izan dira era bateko edo besteko kutsadurak: «Orain dela urte batzuk



ILLUMBE, S.L.
Autoelektrizitatea



LAN ELEKTRO-MEKANIKOAK
Pablo Gorosabel, 48
☎ 65 54 76 TOLOSA
Sorabilla Auzoa, 53 Poligonoa
☎ 59 24 11 ANDOAIN

S T O P
LIBURUDENDA

TESTU LIBURUAK
AUKERA ZABALA LIBURUTAN
(Ingelesean, frantsesean,
italieraz...)

Agustin Leiza 27 ANDOAIN ☎ 59 16 03

amuarrainei onddo arraro batzuk irten zitzaizkiela nabaritu zuten arrantzaleek -kontatu digu Davidek- Hori dela eta, han ibili ziren adituak zirenak eta ez zirenak gaitza nondik etor zitekeen asmatu nabian. Nik ere ordurako zerbait erreparatu nuen: hau da, arrainen azala obi baino leborrago zegoen, izan ere amuarrainek ez dute ezkatarik, baina borren ordezkari babesten dituen substantzia likatsu bat dute. Ni paper fabrikari lan eginda nago, eta berebala gogoratu nintzen han lan egiten genuenean, eskuetako azala nola geratzen zitzaigun. Nire ustez lantegiren batetik zerion gairen baten ondorioz, amuarrainak azaleko substantzia hori galtzen ari ziren, eta azala lehortzen ari zitzairen. Ondorioz gaitzotuta egin ziren». David arrantzaleek neurri zorrotzak eta zehatzak betetzearen aldekoa baldin bada ere, lantegi, baserri eta urak kutsa

ditzakeen orok ere, arau estu batzuk bete behar dituela uste du.

Tolosaldeko arrantzaleek arrain haztegi bat dute, eta etengabe ari dira errekek amuarrainez birpopulatu. Garai batean Europatik ekarritako hazia erabiltzen zuten, gaur egun Pirinioetako ekartzen dute, eta askoz ere amuarrain hobeak hazten ari dira.

Garateen artean handia da arrantza zaletasuna. Davidek benetako arrantzaleak natura maite eta zaintzen dutenak direla dio; mendira eguna igarotzera joan, eta arrain bat bera ekarri ez arren, naturaz gozaten daitenak, hain zuzen ere. Davidek arrantza sasoi bukatzen denean, urtero, lagunei amuarrainak jateko bazkari bikaina eskaini ohi die mendiko txokoren batean. Aurtengo ere, sasoi bukatzean dagoela, urteroko ohiturari eutsi eta hasia da lagunentzat bazkaria antolatzen.

Hilaren hasieran Cangas de Onisen izan zen arrantza txapelketan, "sagu buztan" eran Espainiako txapeldun bihurtu zen Iñigo Urruzunoko andoaindarra. Hori dela eta, duela astebete Ontza elkarteak oroigarri bat eskaini dio, berari nahiz bere anaiei.

Castilla-Leon, Cantabria, Aragoa eta Euskal Herriko ia laurogei parte hartzaile izan ziren txapelketan, eta Andoaindarrak hamabi amuarrain hartu zituen bigarrena. Txapelketan beste gipuzkoarrek ere izan zuten: beste urruzunotar bat, Patxi hain zuzen ere, aurrekoaren anaia, eta Azpeitiko Zelaia.

Politena eta zailena

Gaur egun arrantzaleen artean oso zabaldua dago Ingalaterratik ekarritako arrantza era hau, Iñigoren esanetan, politena eta zailena ere bera da. Iñigo Urruzunok 12 urte daramatza arrantzan egiten, eta

**Andoain
IÑIGO URRUZUNO,
ESPAINIAKO TXAPELDUNA
Ontza elkarteak omenaldia egin dio**

azkenengo urteotan "sagu arratoi" eran bakarrik harrapatzen dituen amuarrainek, Leitzaranen normalean, edota Araxesen eta Bidasoan, bestela.

bertan lortutako postuaren arabera mundu mailako txapelketan parte hartuko du.

Iñigoz gain ordea, Andoainen, ia 200 bazkide inguru dituen Ontza elkarteak badaude beste txapeldun batzuk: Aitor Urruzuno "sagu buztan" eran Espainiako txapelduna da, eta Manuel Salaberria berriz, Espainiako txapelduna da, jaurtiketa arin eran. "Ez da harritzekoa -esan digu Iñigok-, gaur egun Gipuzkoako Ebitza eta Arrantza Elkarte garrantzitsuenetakoa da Ontza".

**la berrehun
arrantzale daude
Ontzan**

Iñigok irabazi duen txapelari esker, mundial aurreko txapelketan parte hartzeko aukera dauka, eta



Iñigo, Aitor eta Patxi Urruzunok, Ontza elkarteak Ignazio Diez eta Manuel Salaberria, Andoaindarrak beste txapeldun bat

FERRETERIA
GOROSTIDI
BURDINDEGIA
SUKALDERAKO TRESNERIA
Nagusia, 3 — ☎ 59 14 80 — ANDOAIN
Nagusia, 18 — ☎ 69 22 37 — BILLABONA

ASTEASUKO JOSTUNAK. 1966



Zutik ezkerretik eskuinera: Margarita Seguro, Larraulgo Pepita Sorozabal, Zizurkilgo Maria Jesus Ugartemendia, Maria Pilar Usabiaga eta Maria Jesus Usandizaga.

Eserita ezkerretik eskuinera: Arantxa Iraola, Alberta Bergara, Trini Beloki, Maria Bergara, **Arantxa Tapia**, Larraulgo Milagros Tejeria eta Larraulgo Maritxu Azkue.

Asteasuko jostundegian ibilitako emakumeak ditugu hauek, asteasarrez gain, zizurkil-darrak eta larrauldarrak daude tartean. Santa Lutzi egunean, abenduaren 13an, Billabonako Laskibar jatetxean bildu ziren lagunartean euren eguna ospatzeko. Alberta Bergara, Trini Beloki eta Maria Bergarak erakusten zieten garai hartan inguruko emakume askori josten.

Informazio emailea: Arantxa Tapia.



BRONTE
ZENTRU
OPTIKOA

ZURE IKUSMENA
GRADUATZEN DUGU
KONTAKTU LENTEAK
GORRENTZAKO APARAILUAK

Kale Berria, 36 - ☎ 69 25 25 - BILLABONA



BRONTE
ORTOPEDIA

NEURRIRA EGINDAKO ORTESIAK,
PROTESIAK eta PLANTILAK
TAILERRA BERTAN

OSAKIDETZAREKIN HITZARMENA

Kale Berria, 36 - ☎ 69 25 25 - BILLABONA
RPS. n° 53/96



• kutxa fundazioa
• fundación kutxa

- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián

Argitarapen honen edizioloko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



LEIZARAN
MARKOZKETA TAILERRA S.L.

Kaleberria, 40
20140 ANDOAIN
TEL.: 59 33 39
FAX. 30 01 57

OLEAK, MARRAZKIAK, AKUARELAK, ESKUZ EGINDAKO ARGAZKI EUSKARRIAK

IÑAKI EZKERRO

Andoaingo tren geltokiko faktorea



- Zertan datza zure lana?
- Trenei irteera eman behar izaten diet, txartelak saldu eta jendea-ri informazioa eman. Dena den, orain txartelak erosteko makina automatikoa daukagu geralekuan, ni hemen ordubiak arte egoten naiz bakarrik eta.

- Jendeak erabiltzen al du makina?

- Nahikoa barrera ona izan du, jendeak erabiltzen du. Hala ere, batzuk ez daude obituta, eta ni ez banago, ez dute txartelik hartzen. Hala ere, ni egonda ere, izaten dira txartelik hartzen ez dutenak ere.

- Zenbat denbora daramazu lan honetan?

- Hamalau urte. Andoainen hiru urte egin ditut, Tolosan hamaika urte egon nintzen.

- Gustatzen al zaizu zure lana?

- Bai, entretenigarria da, gauza ezberdin asko egin behar izaten dira. Egutero zortzi ordu igaro behar ditut hemen lanean, eta abalik eta aurpegi onenarekin egoten saiatzen naiz. Bezeroak ezin dituzu gaizki hartu.

- Ba al dakizu zenbat jendeak erabiltzen duen Andoainen tren?

- Urria inguruan, jende gehien ibiltzen den garaian, 1.500 lagun inguru zenbatu izan ditugu: ikasle asko eta Donostia eta Irunera lanera joaten diren neskameak, batez ere.

- Ze ordutan ibiltzen da jende gehien?

- Goizeko seietatik hasi eta bederatzia bitartean, eta bazkalostean, ordubateetatik lauak arte.

- Jende askok galdetu obi dizu trenen ordutegia?

- Bai, iragarkia kanpoan jarrita egon arren, batzuek ez dute oso ongi ulertzen, eta beste batzuek, badaezpada, ongi ziurtatu nahi izaten dute ordua.

- Egutero bidaztiak azkenean ezagutu eta guzti egingo dituzu.

- Bai, askotan ez daukate norako txartelik ere eskatu beharrik, hilabeteak joan, hilabeteak etorri, azkenean, zeuk ere badakizu zein txartel nahi duten.

- Martxoan geroztik tren berriak ikusi ditugu?

- Bai, eta denborarekin denak aldatzeko asmoa dauka RENFEk. Berriak modernoagoak dira. Jendeak eserlekuak gogorragoak direla esaten du, baina suaren aurka egin da daude. Bestalde, abantailen artean aire egokitua aipatu beharra dago, eta kanpoko jendea iraztasunak emateko geltokira iritsi aurretik hurrengo geltokia iragaritzen da. Funtzionalagoak dira, batez beste, jendeak ordu erdi inguruko ibilbideak egiten dituela kalkulaturik dago. Horregatik, adibidez, tren berri hauetan ez dago inon erreterik.

- Atzerapenak edota bestelako arazoak izaten direnean urduri jartzen da jendea, ezta?

- Bai, baina normala da; gehienek lanera joateko erabiltzen dute tren, eta ordu jakin baterako iristen ez bada, dirua ere gal dezakete batzuek. Hala ere, gero eta arazo gutxiago daude.

PERTSONAIA EZKUTUA



Aiurriren irakurleek asmatu beharreko pertsonaia berria duzue zirriborroaren atzean ezkutaturik.

Saria bikaina da oraingo honetan ere: **Andoaingo Bikoitx argazki dendak estudioan eginiko argazki erreportaiak** eman digu oparizat. Irabazleak argazkiak estudioan egin ondoren, album batean jaso ahal izango ditu.

Lehiaketan parte hartu nahi duzuenak bidal itzazue zuen gutunak honako helbidera lehenbailehen: **Aiurri aldizkaria, Doktor Huizi 15, behea. 20140 Andoain.**

- Argazkiak errebelatzen ditugu
 - Estudio argazkiak egin
 - Karnet argazkiak instantean
 - Ezkontza erreportaiak.
- Argazkiak, bideoak

FOTO-BIDEO-ARGAZKI

KALE NAGUSIA, 19 behea

☎ 30 07 27
ANDOAIN

B
I
K
O
I
T
Z

MUSIKA

ANDOAIN

Uztailak 26: Musika emanaldia Donostiako Jazzaldian parte hartuko duen **Easy Band** taldearekin, Goikoplazan 23.00etan.

Uztailak 27: Musika emanaldia: **The dirty dozen** taldea, Donostiako Jazzaldiko partaidea, Goikoplazan 23.00etan.

BESTE

BILLABONA

OPORREN BUKAERA

Abuztuak 31:

16.00: Tximak txotxongiloak haurrentzat Berdura Plazan.

19.00: Herri kirolak plazan. Harrijasotzaileak: Goenatxo II. eta Zelai. Aizkolariak: Arrospide eta Larretxea.

11.00: Dantzaldia Urubi taldearekin.

12.00: Los Charros mariatxi taldearen kantaldia.

ANTZERKIA

LARRAUL

Uztailak 27: Haurrentzako kale antzerkia herriko enparantzan arratsaldeko lauetan.

IBILALDIAK

AIZTONDO

Uztailak 26: Iparraldeko itsasertzeraz ibilaldia. Izena emateko telefono honetara deitu: 69 39 30.


ANDOINGO ALKATEARI

Ekainaren 21a. 16.00ak. Funtzionari batek espetxez aldatuko naute-la esan dit. Nora?, galdetu diot. Ez daki. Ez du erantzuten. Bihar, larunbata, bisita neukan. Eta astelehenean "vis a vis" a neskarekin. Bi zitak galtzeak min egiten dit. Nora eramango naute? Ardatz beraren inguruan birak emateari sekula uzten ez dion espetxe-erruletak -sakabanaketaren erruletak- nigan jarri ditu begiak. Kaguena la letxe! Sei egun txapeoan Euskal Herrira itzultzeko aldarrikapena eginez, eta orain ezusteko mingari hau.

Zuri lerro batzuk idaztea erabaki dut. Badakizu zergatik? Barrua hustutzeko. Nora naramate Jose Antonio? Ziur ez dakizula. Ezen zuk, Jose Antonio, ez dakizu ezer preso gauden andoaindarroz. Udal batzarrean aretoan pankarta salatzailea zabaltzea da zu arduratzen zaitutena. Bada, pankarta hori toki egokian dago Euskal Herrira itzultzeko daukagun legezko eskubidea errespetatzen ez den artean. Oroitzen al duzu kontu horrekin onartu zen mozioa? Oroitzen al duzu zer bozkatu zenuen? Abstentzioa. Eta horrek min egin zidan: zure gorrotoa pankarta baten aurka askatu zenuelako eta gero, arazoari irenbideak bilatzerakoan, abstentzioaren aukera egin zenuelako. Nire baitan ezagutzea egokitu zaidan arazo honen aurrean begiak ixtea da hori. Zuk, Andoingo Alkateak, ez dakizu nora naramaten, ez du jakiteko interesik ere jarri. Nahia-go nuke oker banengo, gugatik interes apur bat azalduko bazenu, senitartekoekin egongo bazina, udaletxeak presoek babesik eskainiko balie, eta espetxe-erakundeei sakabanaketaren erruleta alde batera uzteko deia luzatuko bazenie. Baina zuri zure gobernu-programak ez duela keinu hauetako bat ere jaso. Nire aurrean eduki nahi zintuzket, bi gauza galdegiteko: nora naramate? Noiz itzuliko naiz Euskal Herrira?


*Juan Joxe Petrikorena,
Andoingo HBko zinegotzi preso. (OCAÑA I)*

KOMIKIA



Santia jaiak 1996

Jai zorienttsuak
opa dizkizue



TESTU LIBURUAK
OHO - BBB - LH - M

ESKOLARAKO
OSAGARRIAK

JOKO
DIDAKTIKOAK

IRAKURKETARAKO
LIBURUAK

ALDIZKARIAK

PAPERDENDA

ESKOLARA
ITZULTZEKO
BEHAR
DUZUN
GUZTIA

ONDO
IGARO
JAIK

BILLABONA
Kale Nagusia, 29 - 69 16 51

AMAIUR

KALE NAGUSIA, 24 - 69 16 11
BILLABONA

**OPARIAK
LURRUNDEGI
JANTZIAK
BITXITEGIA
OSAGAIK**


*Jai zorienttsuak opa dizkizue
billabonatar guztiei*

**Kafetegia
Txokolategia**



Kale Nagusia, 12 - Tel. 69 24 86
BILLABONA

U · P · A · I ·



P · U · B

KALE NAGUSIA, 32
VILLABONA
☎ - 692521

SAHATSA

BELARDENDA ETA
DIETETIKA ZENTRUA
KONSULTA
NATURISTA

ONDO
PASA JAI
EGUNAK

Txermin kalea, 16 - ☎ 69 28 83 - BILLABONA

Tinta
inprimategia

- fotokopiak
- azaleztapenak
- fax zerbitzua
- inprimakiak orohar


Kale Nagusia, 31
Tel. Fax: 69 06 04
20150 BILLABONA

**ONDO IGARO
JAIK**



ETXEKOENTZAT
APARTEKO
OGIA!!

Kale nagusia, 19 - Tel. 69 17 11 - BILLABONA



BILLABONAKO
UDALA



JAI EGUN

ZORIONTSUAK

OPA

DIZKIZUEGU

fotocolor

ERREBELATUA ORDU EAN

Zure argazki
denda



Kodak
EXPRESS
SERVICIO DE CONTROL DE CALIDAD

JOSE IGNACIO UNANUE
JUAN BTA. ERRO 1 - ☎ 59 43 32
20.140 ANDOAIN